



VII. Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak

Artiumeko Liburutegi eta Dokumentazio-Zentroa

2014ko urriaren 29an eta 30ean. Artium Museoa
Informazio-zerbitzuen lidergoa XXI. mendean

**Berrikuntza eta elkarlana Artiumen, dokumentu-
kudeaketaren eredu gisa**

Hitzaldia: Elena Roseras Carcedo

Artiumeko Liburutegi eta Dokumentazioaren arduraduna

Berrikuntza eta elkarlana Artiumen, dokumentu-kudeaketaren gisa

SARRERA

Artiumeko Liburutegi eta Dokumentazio Zentroa 2002. urtean sortu zenetik, beti saiatu gara gure proiektua gidatu duen filosofiari eusten, eskura dauzkagun baliabideak ahalik eta ongiena baliatuz eta gizartean nahiz gure erabiltzaileen premietan gertatzen ari diren aldaketei egokitzen saiatuz.

Artikulu honetan liburutegian 2013aren eta 2014aren bitartean egin den lana agertuko dugu. Aldi honetan abian jarriak genituen programen eta zerbitzuen azterlan sakon bat egin dugu, haien bideragarritasuna, egin litezkeen aldaketak eta egin beharreko hobekuntzak, hala nola proiektu berriei heltzeko aukera analizatu nahian.

1. DOKUART EGUNERATZEN

2005ean Drupal eduki-kudeatzailea martxan jarri zenetik, espazio horretan txertatuz joan gara gure jardueri eta Museoko bildumako artistei buruz sortzen zen informazioa. 2013aren hasieran Drupalen bertsio berria eta eguneratua jarri genuen abian, eta bi urteotan zehar informazioa berrikusten aritu gara, hobekuntzak eginez, atal eta funtzio berriak erantsiz eta eduki berriak sortuz.


Urte horietan sail berriak sortu ziren, funtzio berriak eransteko premia ere antzeman zen, eta argi ikusi genuen, egungo errealitatera egokitu ahal izateko, funtsezkoa zela Drupalen egitura eta diseinua aldatzea. Gure premiak analizatuz eta egitura berri bat sortuz hasi ginen, diseinuan aldaketa garrantzitsuak eginda, diseinu berritua museoko webguneari egokitzeko asmoarekin gainera.



1. DokuArt artxibo dokumentalerako sarbide-pantaila nagusia


Beharrezko aldaketak egin ondoren, honako modu honetan geratu da taxutua DokuArten egitura:

- Katalogoa
Atal honetatik liburutegiko katalogora iristen da, bertan dokumentatzen baita museoaren ondare bibliografikoa: erakusketen katalogoak, monografiak, artista-liburuak, komikiak, foiletoak, kartelak, aldizkariak, bideoak, audio-artxiboak, etab. Sail honetatik sarbide zuzena eskaintzen da komikien bildumara, Artiumen albisteetara eta berrikuntza bibliografikoen bilaketetara.



2. Kontsulta katalogo bibliografikoan. Komikien saila

- Artistak
 Artisten zerrenda alfabetiko batera iristen da, eta han bildumako artistei edota museoko erakusketaren batean parte hartu dutenei buruzko informazioa jasotzen da.



3. Artisten sailerako sarbide-pantaila DokuArten

Konsultatu nahi dugun artistarengana ailegatzeko gurekin, informazio zabala topatzeko gurekin haren biografiak, erakusketak, artelaneak, sariek, obrek, Artiumen egin dituen erakusketak eta hari buruzko baliabide bibliografikoez. Zer artista den, aldatu egiten da informazioa. Era berean, Arterako hitzak programaren baitan idazleren batek artista horren obra bat hautatu baldin bada, idazlearen txostenaren estekaturik eskaintzen da informazio hori.



4. Picassoren txosten dokumentalerako sarbide-pantaila DokuArten

- Arterako hitzak



5. Arterako hitzak sailerako sarbide-pantaila DokuArten


Atal honetan jarduera jakin bat dokumentatzen da: Artiumek gonbidaturiko idazleek bilduma museografikoko artelan bat hautatzen dute, eta artelan hari buruz duten ikuspegi literarioa edo pertsonala eskaintzen dute.

Idazlearen txostena egiteko, honako hauek eskaintzen ditugu: haren biografia, haren literatura-lanari buruzko informazioa, idazleak bere hitzaldirako hautatu duen artelana, idazleari buruzko baliabide bibliografikoak eta hautaturiko artistaren txostenarekiko esteka.



6. Santiago Roncagliolo idazlearen txostenerako sarbide-pantaila DokuArten


- Zinemaren inguruan



7. Zinema-sailerako sarbide-pantaila DokuArten

Txosten hauek liburutegian programaturiko filmak dokumentatzen dituzte. Filmaren tituluaren, zuzendariaren edo antzezle nagusien abizenaren arabera antolaturiko zerrenda alfabetiko baten bitartez, eskuratu nahi dugun informazioa aurkituko dugu.

- Erakusketak



8. Erakusketa-sailerako sarbide-pantaila DokuArten

Liburutegian Artiumen programatzen eta antolatzen ditugun erakusketa bibliografiko guztiak dokumentatzen ditugu. Erabiltzaileei gure zentroko funts bibliografikoak ezagutaraztea da erakusketa horien xedea, eta, erakusketa antolatzeko, gure funtsekin eta arte eta kultura garaikideekin loturiko hari gidari bat hautatzen dugu, eta gai horren inguruan osatzen dugu erakusketaren txostena.

Home Catálogo Artistas Letras para el arte En torno al cine Exposiciones Programas de cine Archivo sonoro

Artium DokuArt. Biblioteca y Centro de Documentación

Guernica de Picasso: historia, memoria e interpretaciones

Presentación
 Inicio » Exposiciones » Guernica de Picasso: historia, memoria e interpretaciones

Guernica de Picasso: historia, memoria e interpretaciones

Picasso ante el encargo
 El Guernica
 El Pabellón español de la Exposición Internacional de 1937 en París
 La ayuda de Picasso a los artistas exiliados
 Primer periplo por Europa
 Peregrinaje por los Estados Unidos de América
 Dimensión política del Guernica en la segunda mitad del siglo XX
 La llegada de la obra
 Picasso, el Guernica y el cine

Recursos
 Galería fotográfica
 Escenario
 Videoconferencias
 Video
 Artista:
 Pablo Picasso

La exposición bibliográfica y documental que propone la Biblioteca y Centro de Documentación de ARTIUM muestra una aproximación al origen de esta importante obra, sus formas plásticas y el periplo al que se vio sometida desde la Exposición Universal de 1937 en París hasta su llegada a España.

Versión para impresión Enviar por e-mail

9. Picassoren Guernica: historia, oroimena eta interpretazioak erakusketarako sarbide-pantaila DokuArten

- Zinemako esku-programak

Home Catálogo Artistas Letras para el arte En torno al cine Exposiciones Programas de cine Archivo sonoro

Artium DokuArt. Biblioteca y Centro de Documentación

Inicio » Programas de mano de cine » A

A [A][B][C][D][E][F][G][H][I][J][K][L][M][N][O][P][Q][R][S][T][U][V][W][X][Y]

A la Habana me voy

A Paris con el amor

Adiosmos

Acorralado

Adán y ella

Adiós Mira

Adolescencia

Adorable coqueta

10. Zinemako esku-programetarako sarbide-pantaila DokuArten 2005. urtean zinemako mila esku-programa erosi zituen Artium Museoak 1930-1960 urte bitartekoak. Dokumentatu eta digitalizatu ondoren, DokuArten sartu ziren, eta bertatik heltzen da haietara, zerrenda alfabetiko batean zehar.

Inicio » Programas de mano de cine » A » Adán y ella

Adán y ella



Título: Adán y ella
Título original: Adam and Eve
Director: Harold French
Intérpretes: Stewart Granger
 Jean Simmons
 Edwin Stiles
 Raymond Young
Fecha estreno: 26-12-1949
Fecha estreno Vitoria: 09-03-1952
Teatro: Gran Cinema Vesa (Vitoria-Gasteiz)
Géneros: Comedia
Signatura: DEP PROO 1949-104

Tráiler Youtube:



Versión para impresión [G+](#) [in](#) [D](#) [T](#) [F](#) [S](#) [E](#) [M](#) [A](#) [P](#) [S](#) [W](#) [X](#) [Y](#) [Z](#) Enviar por e-mail [G+](#)

11. Adán y ella filmaren esku-programarako sarbide-pantaila DokuArten

- Soinu-artxiboa

Artium Home Catálogo Artistas Letras para el arte En torno al cine Exposiciones Programas de cine Archivo sonoro
 DokuArt. Biblioteca y Centro de Documentación

Inicio » Podcast » S

A | B | C | D | E | F | G | H | I | L | M | O | P | S | T | U | V | Z

ver más >

<p>Pepo Salazar (26/03/2008)</p>	<p>Pepo Salazar (07/02/2009)</p>	<p>Diego Santomé</p>
<p>Andrés Serrano (22/06/2006)</p>	<p>Andrés Serrano (21/06/2006)</p>	<p>Santiago Sierra</p>
<p>Patti Smith</p>	<p>Eduardo Saurouille</p>	<p>Jana Sterbak</p>

12. Soinu-artxiborako sarbide-pantaila DokuArten



Inicio » Podcast » 5 » Andrés Serrano (21/06/2006)

Andrés Serrano (21/06/2006)



Exposición: Andrés Serrano. *El dedo en la llaga* (2006)

Vista guiada del fotógrafo Andrés Serrano (Nueva York, 1950) a su exposición en Artium Centro Museo Vasco de Arte Contemporáneo de Vitoria-Gasteiz. Grabado en Artium el 21 de junio de 2006.

Autor: Andrés Serrano

Actividad: Visitas guiadas

Versión para impresión Enviar por e-mail

13. Andrés Serranoren soinu-artxiborako sarbide-pantaila DokuArten

Artium Museoak 2002. urtean sortu zenetik dauzka gordeak bertan izan diren hitzaldien, bisitaldi gidatuen, elkarrizketen eta solasaldien soinu-grabazioak. Grabazio horiek dokumentazio-zentroan jaso eta analizatu ondoren, digitalizatu, editatu eta iVoox-era igotzen dira, eta ondoren DokuArten bitartez estekatzen dira.

2. 2012-2014 ERAKUSKETA BIBLIOGRAFIKOAK

Urtean gure funts dokumentalekin loturiko bi erakusketa antolatzeko usadioari jarraituz, aldi honetan programatu ditugun erakusgaiak eskaintzen dira.

- o Zinema dokumentala edo errealitatea sormenez lantzen



14. Zinema dokumentalari buruzko erakusketarako sarbide-pantaila DokuArten

Home | Catálogo | Artistas | Letras para el arte | En torno al cine | Exposiciones | Programas de cine | Archivo sonoro

Artium DokuArt. Biblioteca y Centro de Documentación

Cine documental o el tratamiento creativo de la realidad

El documental norteamericano de la Depresión y el New Deal

Inicio » Exposiciones » Cine documental o el tratamiento creativo de la realidad » El documental político en los años 30 y 40 » El documental norteamericano de la Depresión y el New Deal

Durante los años 30 y 40 el documental tuvo un marcado contenido político coincidiendo con dos hechos principales: La Gran Depresión, una crisis económica mundial que se prolongaría durante la década de 1930 y en los años anteriores a la Segunda Guerra Mundial, y el New Deal, nombre dado por el presidente estadounidense Franklin D. Roosevelt a su política intervencionista, para luchar contra los efectos de la Gran Depresión en Estados Unidos.

Madre inmigrante, Dorothea Lange (1936)

Caída de la Bolsa de Nueva York (1929)

Franklin D. Roosevelt

Los grandes estudios norteamericanos entregaban cada año por cottizado 52 películas, y otros tantos cortometrajes y noticias a las salas de todo el mundo. Estos noticiarios tenían un contenido normalmente de entretenimiento y espectáculo, sobre todo porque los directores ejecutivos pensaban que la controversia podría generar traspases. En 1931 la Fox Corporation dudó un momento en que se prohibía exhibir en sus salas noticiarios que tuvieran un contenido controvertido.


- Los inicios. El cine documental informativo
- Los años 20: Flaherty - Dziga Vertov - Jean Vigo
- El documental político en los años 30 y 40
- El documental norteamericano de la Depresión y el New Deal
- Justa Feina - Compromiso social
- John Grierson - La escuela documental inglesa
- El documental en la Alemania Nazi
- El documental bélico durante la Segunda Guerra Mundial
- Cine documental de posguerra
- Montaje documental
- Nuevas tendencias
- Falso documental
- Cine documental social actual
- Recursos
- Galería fotográfica
- En prensa
- Cartel

15. Zinema dokumentalari buruzko erakusketaren txostena

Erakusketa bibliografiko honek zinema dokumentalaren munduan sartzen gaitu, hasi zenetik –zinematografoaren sorreraren aldi berean–, eta 20etako hamarkadako eskola klasikoak, 30 eta 40 urteetako dokumental politikoak, bigarren mundu gerrako dokumentalak eta gerra ondorengoak, hala nola zinema-genero honetako joera berriak ere barne direla.


Erakusketa honetan kontsulta zitezkeen, gainera, genero honi buruzko hainbat eskuliburu eta aldizkari espezializatu, zinema dokumentaleko film-sorta zabal batez gainera: Robert J. Flahertyren Nanook, el esquimal eta Hombres de Aran, Dziga Vertov-en El hombre con la cámara, Walther Ruttmann-en Berlín, sinfonía de una ciudad, Pare Lorentz-en The Plow That Broke the Plains, Humphrey Jennings-en I was a fireman, Chris Markerren La jetée, Jean-Luc Godard-en Banda aparte eta Alan Berliner-en Nobody's business, besteak beste.

- Pritzker Sariak, bidaia arkitektura garaikidera



16. Pritzker Sariet buruzko erakusketaren txostena

Erakusketa honek ibilbide bat proposatzen du nazioarteko arkitektura garaikideko hainbat eraikinetan barna. Hainbat arkitekto buruzko dokumentazioa eskaintzen da (Frank Gehry, Hans Hollein, Herzog eta de Meuron, Jean Nouvel, Norman Foster, Oscar Niemeyer, Rafael Moneo, Renzo Piano, Tadao Ando, Zaha Hadid, eta abarri buruzkoa), eta baita haien arkitektura-lan nagusiei buruzkoa ere. Erakusketan parte hartu duten arkitekto guztiek jaso dute Pritzker Saria, arkitekto baten ibilbidean izan litekeen aitoren nagusietako bat.



17. Pritzker Sarietarako buruzko erakusketaren denbora-lerroa

Hautaturiko arkitekto edo talde bakoitzarentzako berariaz prestatutako espazioen bitartez antolatu zen erakusketa hau. Espazio bakoitzean egileari buruzko bibliografia hautatu bat zegoen, eta berebat eskaintzen ziren haren obraren irudiak eta dokumentuak ageri zituen ohol bat.

Erakusketan bazen espazio zentral bat, eta han arkitekturari buruzko liburu bereziak aurkitzen zituen bisitariak, barnean zabal zitezkeen elementuak zeuzkaten liburuak eta eraikuntza-jokoak.

Era berean, Pritzker Saria jaso duten arkitektoei buruzko film dokumentalak ere ikus zitezkeen: Álvaro Siza (besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateko Bilboko Paraninfoaren egilea), Jørn Utzon (Sidneyko Opera), Tadao Ando (Eliza uraren gainean, Hokkaido), Renzo Piano (Georges Pompidou Zentroa, Paris) eta Luis Barragán (Casa Luis Barragán, México, D.F.) arkitektoei buruzkoak, eta, horiez gainera, baita Frank Gehry, Norman Foster eta Rem Koolhaasi buruzkoak ere.



18. Pritzker Sariet buruzko erakusketaren haur-sailerako sarbidea

Erakusketa honetan haurrek bazuten beren espazioa eta bazuten halaber liburu- eta bideo-sorta hautatu bat, webgune jakin batzuetarako sarrera izateaz gainera, zeinetan baitzeuden haurrentzat bereziki antolaturiko arkitekturari buruzko edukiak. Maketa batzuk ere ipini ziren eraikin enblematikoei buruzkoak, muntatu eta arkitektoa izatera jostatu ahal izateko.

- Nobela grafikoari buruzko erakusketaren kartela



19. Nobela grafikoari buruzko erakusketaren kartela



20. Nobela grafikoa. Salaketa eta gizarte-kritika erakusketaren irudia



21. Nobela grafikoa. Salaketa eta gizarte-kritika erakusketaren txostena

Nobela grafikoaren gaiaren inguruan antolaturiko erakusketa. Erakusketan bildu ziren obrek bete-betean gaur egungoak diren gaiak lantzen dituzte, nola diren, besteak beste, gerra-gatazkak, emakumearen eskubideak edo krisia. Salaketak eta gizarte-kritikak egituratu zuten erakusketan barna egin beharreko ibilbidea, eta aretoan bertan kontsulta zitekeen dokumentazioa osorik (monografiak, filmak, komikiarekin eta nobela grafikoarekin loturiko aldizkariak, bideoak, etab.).

Komikiek hasieran irizpide ludikoa bazuten ere, bilakaeraren poderioz, beste eremuetan ere barneratzen da gaur egungo komikia, baita aktualitatean bertan ere, eta oso ikuspuntu desberdinetatik. Ikusmolde intimistago batetik eta ikusle helduei zuzenduz, nobela grafikoak gizarte-eduki indartsua duten gaiak lantzen ditu, kontakizun-hizkera bikaina baliatuz horretarako.

Gizarte-gaiak gero eta presentzia handiagoa dute komikiaren alorrean. Krisi ekonomikoa eta balioen krisia, gatazka armatuak, gaixotasunak, tratu txarrak, langabezia edo haurrei eragindako tratu txarrak dira, beste askoren artean, erakusketa honetan dauden nobela grafikoek lantzen dituzten gaiak. Egileek irakurlearen arreta bereganatu nahi dute, inguratzen duena azter dezan honek, eta nobela grafikoa errealitatearen ispilu bihurtuz.

- Publizitate-diseinu sortzailea



22. Publizitate-diseinu sortzailea erakusketaren irudia



23. Publizitate-diseinu sortzailea erakusketaren irudia

Erakusketa honetan komunikazioaren hizkera bisual eta estetiko desberdinak aurkezten ziren, eta baita komunikazioaren joera desberdinak ere. Era berean, kontzeptu, irudi eta mezu berrietan oinarritutako irtenbide irudimentsuak ikusten ziren, publizitate-diseinu berritzaile bat sorrarazten dutenak.

Hainbat eratako ideiak eta kontzeptuak baliatzen dituzte publizistek beren kanpainak garatzeko. Zinemaren mundua baliatzen dute, telebistarena eta, jakina, baita artearena ere, bere forma guztietan. Profesional hauek sentiberatasun artistiko berezia dute, eta kanpaina egiaz eragingarriak sortzen dituzte, artelan ezagunetan oinarrituak. Era horretan, artea publizitatearen inspirazio-iturria bihurtzen da, eta artelanak berriz erabiltzen dira, bestelako xede batekin, baina merkataritzakoarekin. Nazioko eta nazioarteko era guztietako marken iragarkien protagonista bihurtzen dira horrela artearen historiako lan handiak. Artearen mundua, era horretan, funtsezko erreferentzia bihurtzen da publizistentzat, bai artelanak partez erabili direlako, bai zuzenean baliatu direlako. Ikusleek artelan ikoniko hauek ezagutzeak, bestalde, funtsezko eginkizuna du erakusketan. Ospe handiko obrak izanik, indartsuagoa eta zuzenagoa da igortzen den mezua.

Ohol grafikoaren eta bideoen bitartez, adibide ezagun asko biltzen zituen erakusketak, azaltzen zutenak nola erabili duen publizitateak artearen eremua inspirazio-iturri gisa, eta nola erabili duten museoek publizitatearen sormena.

Hala, eta besteren artean, loturik zeuden Perrier edari-enpresa eta Dalí, Nestlé elikagaiak edo eraikuntzari loturiko Velux marka eta Johannes Vermeer, edota Keloptic optika eta Van Gogh, eta aretoan bertan ikus

zitezkeen. Beste adibide ezagun batzuk ere jarri ziren aretoan, hala nola Pantoneren iragarkia Andy Warholekin lotua, Dior, Magimix eta Ray Banenak Magritte zutela inspirazio-iturritzat, Volkswagen Roy Lichtensteinekin, eta Stella Artois Mondrianekin.

Era berean, ugariak dira, artearen mundua erreferentzia gisa harturik, museoek egindako publizitate-kanpainen adibideak. Era honetako hainbat kasu ikusi ahal izan ziren aretoan: Chicagoko Field Museumekoa, zeinak Jacques-Louis Daviden Napoleón cruzando los Alpes koadroan oinarrituriko kartel bat baliatu baitzuten zaldia buruzko erakusketa bat sustatzeko; ONCEren Museoa, Leonardo da Vinciren La Giocondarekin; São Pauloko Arte Museoa; eta Moskuko Arkitektura Museoa.

Horrez gainera, 100 bat publizitate-iragarki ikus zitezkeen aretoaren barneko bi bideo-pantailetan, ildo beretik telebistarako eginak. Diseinuari eta publizitateari buruzko liburutegiko 120 alerekin osatu zen erakusketa, DokuArt web atariaren bidez irits zitekeen dokumentazio zabal bat izateaz gainera.

3. 2012-2014KO JARDUERAK

- Arterako hitzak



24. Santiago Roncagliolo idazlearen txostenerako sarbide-pantaila

Hauxe da liburutegiak 2005. urteaz gero antolatzen duen jarduera bat, helburua arte garaikidera hurbiltzeko modu berri bat eskaintzea duena, zenbait idazleren begiradaren bitartez. Museoko bildumako obra bat behar dute idazleek hautatu, eta beren ikuspegi literarioa eman hari buruz. Urteotan, honako idazle hauekin

aritu gara elkarlanean: Manuel Vilas, Santiago Roncagliolo, Karmele Jaio, Jesús Camarero, Ángela Serna eta Mikel Valverde.

- Zinemaren inguruan



Home Catálogo Artistas Letras para el arte En torno al cine Exposiciones Programas de cine Archivo sonoro

DokuArt. Biblioteca y Centro de Documentación

Amor

Ficha técnica
Sinopsis
La película
Recursos
Video
Director:
Michael Haneke
Intérpretes:
Jean-Louis Trintignant

Inicio » En torno al cine » Películas » A » Amor » La película

La película

La película Amor ahonda, como su propio nombre indica, en el amor más puro de una forma dolorosa pero elegante, triste pero no dramática. Narra la historia de un matrimonio, Georges y Anne, ambos profesores de música clásica ya jubilados, que llevan una tranquila y ordenada vida. Tras un concierto regresan a casa conversando sobre música, se quieren, se entienden, sus gestos delatan complicidad. A la llegada a casa Georges le dice a su mujer: "¿Te he dicho lo guapa que estabas esta noche?" la ternura con la que se refiere a su mujer denota el amor que siente por ella. Se trata de un intenso relato sobre la vejez y el amor, un amor afianzado por el paso del tiempo, que lejos de desgastarse se ha reforzado.



El filme está repleto de estos gestos, de un sentimiento profundo, de respeto, de amor. Al día siguiente, mientras desayunan ocurre algo que cambiará sus vidas para siempre. Anne se queda por unos instantes sin hablar, no escucha, no se mueve, Georges preocupado comienza a vestirse para pedir ayuda pero entonces escucha como su esposa cierra el grifo que él ha dejado abierto, atónito regresa a la cocina y Anne parece estar bien, como siempre, como si nada hubiera ocurrido.

25. Michael Haneke Amor filmaren txostenerako sarbide-pantaila

Jarduera honi esker, bakarka ikus daitezke hautaturiko filmak eta filmei buruz osaturiko informazio osora jo daiteke. Aurten ondorengo zuzendari hauen filmak programatu dira: Icíar Bollaín, Walther Ruttmann, Alain Resnais, Tim Hetherington, Sebastian Junger, Robert J. Flaherty, Dziga Vertov, Emile de Antonio, Michael Haneke, Juan José Campanella, Marc Foster, Marjane Satrapi, Vincent Paronnaud, Ignacio Ferreras eta Thomas Vinterberg.

Berebat antolatu da Zinema dokumental soziala izeneko saila. Sail honetan ondorengo film hauek programatu dira: Jean Vigoren A propósito de Niza, José Luis Guerín en En construcción, Pere Joan Venturaren El efecto Iguazú, Carles Bosch eta Joseph María Domènech-en Balseros, Michael Mooreren *Bowling for Columbine*, eta Joaquín Oristrell, Pere Portabella, Álvaro del Amo, David Trueba eta abarren ¡Hay motivo!

Jarduera-ildo honen baitan, eta Pritzker Sarietarako buruzko erakusketarekin loturik, hainbat arkitekto garaikideri buruzko zinema-sail batez gozatzeko aukera ere izan dugu. Hona hemen programatu eta dokumentatu diren filmak: Jørn Utzon: El límite de lo posible, Rem Koolhaas: más que un arquitecto eta Renzo Piano: visitas de obra.

- **Irakurketa-taldea**
Programa honen bitartez jende-talde batek irakurketaren plazera partekatzen du. Artearen munduarekin loturiko liburu bat hautatzen da, eta, dinamizatzaile baten laguntzarekin, argitalpena aztertzen eta lantzen da.
Aldi honetan, ondorengo liburu hauek landu ditugu: Martí Manemen Contarlo todo sin saber cómo, Michel Houellebecqen El mapa y el territorio, Agota Kristofen Koaderno handia, Eloy Tizónen Técnica de iluminación eta Elena Poniatowskaren Leonora.
- **Ikastaroak**
Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak eta baliabideak zenbait prestakuntza-saioaren bitartez ezagutarazi nahi dira, era horretan haien erabilera bultzatzeko. Liburutegiko langileek ematen dituzte ikastaro hauek, eta hartzailea, berriz, arte eta kultura garaikidearekin loturiko informazioa bilatzen, kudeatzen eta erabiltzen lagunduko dioten tresnak ezagutu nahi dituen edozein pertsona da. Programatu diren ikastaroen artean, honako hauek seinala genitzake:
 - Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen eta baliabideen erabilpena. Erabiltzailea liburutegia bera erabiltzen trebatu nahi da, funtsak nola antolatuta dauden erakutsiz, zer zerbitzu ematen duen, aurrez aurrekoak nahiz birtualak, edota zer informazio-iturri erabil lezakeen, besteren artean.
 - Informazioa nola bilatu datu dokumentalen baseetan. Informazioa bilatzeko ikastaroa, Artiumen bibliografia-katalogoan, DokuArt artxibo dokumentalean, Museoko beste tresna batzuetan, eta kultura garaikidearekin loturiko kanpoko katalogoetan nahiz beste datu-baseetan.
 - 2.0 tresnak eta zerbitzuak gure zentroan. Prestakuntza-saio honetan, gure programak gizarteratzeko eta beste erabiltzaileekiko harremanetarako Museoan erabiltzen dugun webgune sozialaren zerbitzuak eta tresnak erakusten dira.
- **Liburuen Nazioarteko Eguna**
Liburuen Nazioarteko Eguna dela-eta, Artiumeko Liburutegiak irakurketaren sustapena eta kultura garaikidearen zabalkundea bultzatzen ditu urtero, apirilaren 23an hainbat jarduera programatuz: BookCrossing edo Liburuak askatzeko kanpaina, irakurraldi partekatuak, erakusketa bibliografikoak eta kontzertuak, besteren artean.



26. Jazzruela kontzertuaren irudia

Erakusketa bibliografiko baten inaugurazioarekin hasten da ospakizuna; ondoren irakurraldi partekatuak hasten dira, egun osoan etenik gabe luzatzen direnak, eta bukatzeko, eta Gasteizko Musika Kontserbatorioarekin elkarlanean, kontzertu bat antolatzen da. Horrez gainera, egun osoan zehar, BookCrossing nazioarteko ekimenaren baitan, Museoko liburu bikoiztuen bildumako liburuak askatzen dira hiriko hainbat toki enblematikotan.

Hona hemen bi urteotan antolatu diren kontzertuak:

- *Jazzaren poesia ozena*. Guridi Txiki Big Band & Guridi Big Band taldeak kontzertu bat eskaini zuen, pieza baten eta bestearen artean poesia-irakurketak tartekatuz, M^a Cruz Irazabal eta Javier Larreina antzezleen eskutik. Testuak, besteak beste, Cesare Pavese, Jack Kerouac, Allen Ginsberg eta Bertold Brechtenak ziren, eta beti ere poesia eta jazz lotzen zituzten.
- **Jazzruela**. Jazz eta literaturako programa, Julio Cortázarren Rayuela nobelaren ingurukoa, liburuaren 50. urteurrena ospatzeko, Guridi Txiki Big Band & Guridi Big Band taldeak eskainia. M^a Cruz Irazabal eta Javier Larreina izan ziren errezitatzailleak.
- 32nd ADLUG ANNUAL MEETING: 'Perspectives for Digital Libraries and Information Centers in a World of Economic Recession '



27. ADLUGen batzarraren irudia

2013. urtean, Vitoria-Gasteizen egin zen, Sancho el Sabio Fundazioak eta Artiumeko Liburutegiak antolatutako, liburutegi digitalen erabiltzaileek urtero egiten duten bilera. Kultura-erakunde batzuek eta besteek bizi duten egungo egoeraz jabetuta, ondoko izenburua aukeratu zen jardunaldi hauetarako: Liburutegi digitalen eta informazio zentroen etorkizuna nazioarteko ekonomiaren atzeraldi-egoera honetan.

4. ALIADA PROIEKTUA: DATU IREKI ESTEKATUEN ARGITALPEN AUTOMATIZATUA LIBURUTEGIETAN ETA MUSEOETAN



28. Aliada proiektuaren webgunea

Aliada Europar Batasunaren Zazpigarren Esparru-Programako ikerketa proiektuen artean dago. Scanbit eta @Cult enpresa teknologikoek eta web semantikoan espezializatutako ikerketa-agentzia batek —Tecnalia—, eta bi museoek —Artium, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa eta Budapesteko Arte Ederren Museoa—, osatutako partzuergo bat ari da Aliada proiektua garatzen.

Proiektuaren motibazioa:

- Liburutegien eta museoen eginkizunen artean dago, besteak beste, kultura-ondarearen eta entitatearen oroimenaren parte diren objektuak eta baliabideak bateratzea, katalogatzea, kontserbatzea eta ezagutaraztea.
- Zentro hauetan sortzen eta kudeatzen dira kultura- eta ondare-baliabide horien gaineko metadatuak, kalitate handikoak.
- Ondare-zentro hauek beren metodo propioa erabiltzen dute informazioa kodetzeko, eta horregatik, «informazio-biltegi» gisa hartzen dira sarean.
- Gogoan izan behar da liburutegietako eta arte-bildumetako katalogoak opakuak izaten direla sarean.

Proiektuaren helmena:

- Museoetako eta liburutegietako bildumen kudeaketarako softwareak dauzkan mugak gainditzea da helburua, formatu estandar batean kodetuz metadatuak sarean.
- Honen bidez, datu bibliografikoak eta museoetako bildumenak (datasetak) automatizaturik argitara daitezke datu ireki estekatuen hodeian (LODC), zeinak liburutegi- eta museo-kudeaketako sistemetan biltegitatuak baitaude gaur egun, MARC, LIDO eta Dublin Core estandarren arabera. Datu horiek Linked Open Data teknologiaren arabera argitaratzeko, beharrezkoa da web semantikoaren estandarrak jarraitzea (RDF, URIs).
- Liburutegiei eta museoei laguntzea da proiektu honen xedea, haien edukiek elkarreragina izan dezaten sareko beste batzuekin, era horretan beren bilduma eta baliabideei balio erantsia emanez.
- Liburutegietan eta museoetan erabiltzen diren estandarrak betetzen ditu (MARC, FRBR, FRAD, LIDO, etc.) eta baita web semantikoan erabiltzen direnak ere (RDF, SPARQL, etab).
- Tresna eleaniztun bat jarri da martxan, hasteko partzuergoan parte hartzen duten hizkuntza batzuetan: ingelesa, espainola, italiara eta hungariera.
- Datu ireki estekatuen erabilera:
 - Datu estekatuek ahalmen handia eskaintzen diete sektore guztiei, bereziki akademikoari, ikerketakoari eta Administrazio Publikoari.
 - Jakintza sustatzen, partekatzen, banatzen eta berriz erabiltzen laguntzen dute.
 - Zerbitzu, produktu eta datuen aplikazio berriak sortzen laguntzen dute.

Aliadaren lehen bertsioa argitaratu eta instalatu zelarik, eta erabilgarritasunezko eta monitorizazio teknikoazko lehen barne-probasaioak eginik, partzuergoko kide teknologikoek bigarren prototipoa garatzen jarraituko dute, eta hura, aurrenekoa bezala, berriz ere Partzuergoko erakundeetan saiatu eta jarriko da martxan. Kanpoko lankideak ere inplikaturiko dira analisi honetan, proiektuaren eragina

neurtzeko xedeaz, eta emaitzak tresnaren eta sorturiko dataseten esplotaziorako erabiliko dira.

5. GAIEN IDAZPURIEN ARAZKETA ETA TESAUROS HIRUELEDUN BATEN HASIERA

Aliada europar proiektuaren esparruan, gaien idazpurien arazketari heldu dio Artiumen Liburutegiak. Liburutegiak zabalik daramatzen hamabi urtean, katalogazio-irizipideak definituz eta erabili beharreko gaien idazpuruak hautatuz joan dira, osotasunezko, espezifikotasunezko, uniformetasunezko eta hizkuntzazko irizpideei jarraituz, liburutegi honen eta liburutegiaren erabiltzaileen premiei egokituz betiere. Hamabi urte eman ondoren termino kontrolatuen multzo hori osatzen, argi geratu da ondo aztertu eta berrikusi behar zirela erabilitako gai-idazpuruak, gogoan izanik termino horiek ahalik eta egokienak izan behar dutela gure erabiltzaileentzako corpus koherente eta erabilgarri bat osatze aldera.

Berrikusketa hori egin denean, euskarara eta ingelesera itzuli da multzo osoa, eta uneotan lanean ari gara liburutegi-kudeaketarako programan txertatzeko.

6. LINEAKO ARGITALPENAK



29. Lineako argitalpenen orri nagusia

Uneotan Drupal software libreko tresnan oinarririkoa proiektu bat ari gara diseinatzen, errepositorio digital ondo antolatua eta etengabe hazten dena eraikitzeko asmoarekin.



Errepositorio honekin balio erantsia eman nahi zaie Museoak paper-euskarrian argitaratzen dituen argitalpenei ere, katalogoari loturiko era guztietako dokumentazioa barne dela:

- Erakusketaren gaineko informazioa.
- Artistarekin loturiko dokumentazioa.
- Argazki-galeria, erakusketan bertan, eta erakusketa muntatzen eta desmuntatzen ari denean egindako irudiz hornitua, katalogoa aberats dezakeen beste edozein informazio grafiko ere eransten delarik.
- Multimedia-galeria, delako gertaeraren inguruko hitzaldiak eta elkarrizketak emanez.
- Prentsa-oharrak, foiletoak, kartelak.
- Erakusketarekin loturiko jardueren buruzko informazioa.

Telefono mugikorrera eta tabletetara egokitzea izan zen proiektu hau antolatzeko orduan funtsezkotzat jo zen beste alderdi bat. Horretarako, webgunaren diseinua prestatu zenean, gogoan izan zen beste dispositibo horietatik ere heldu beharra zegoela edukietara, zuzen heldu ere. Horretarako, nabigazio-menua eta edukibilatzaileerako sarbidea egokitu ditugu, baita testuaren irakurgarritasuna eta irudien bistaratze zuzena ere. Zentzu horretan, ez dago webguneko eduki guztietara iristerik telefono mugikorren eta tableten bitartez.

7. AMAIERA

Inguruan ditugun programa eta zerbitzu guztiak analizatzen jarraitzea da gure asmoa, eta, horrez gainera, funtzionaltasun berriak geureganatzen jarraitzea, erabiltzaileen premiei eta gizartea bizitzen ari den aldeketei egokituak. Horregatik guztiagatik, etengabe mugitzen den zentro bat bultzatuz jarraituko dugu, eta berrikuntzaren eta lankidetzaren aldeko apustua eginez beti.